

# Trebetasun sozialak erakusten eskola kirolean

(Teaching social skills through school sport)

Vizcarra Morales, M<sup>a</sup> Teresa

UPV/EHU. Gasteizko Irakasleen Unib. Eskola. Juan Ibañez de Sto.

Domingo, 1. 01006 Gasteiz

mariate.bizkarra@ehu.es

BIBLID [1137-4447 (2006), 15; 89-101]

Jaso: 06.10.23

Onartu: 06.11.24

---

*Idazki honen bidez, mahaigaineratu nahi dugu Eskola Kiroleko arduradunen formakuntza prozesua ulertzeko modu bat. Gure ustez kirolean hainbat faktore sozialen garapenak ikaskuntza-irakaskuntza prozesua baldintzatzen du. Aurkezten dugun lana Gipuzkoan garatzen da, Foru Aldundiak bultzatutako ikerketa baten bidez, eta bertan, entrenatzaile eta koordinatzaile talde baten ardurak eta kezak azaltzen ditugu, hauen arabera trebetasun sozialak garatzeko interbentzio plan bat sortu baikenuen.*

*Giltza-Hitzak: Eskola Kirola. Formazioa. Interbentzio plangintza. Trebetasun sozialak. Esperimentazioa.*

*Por medio de este trabajo pretendemos plantear una manera de entender el proceso de formación de los responsables del Deporte Escolar. En nuestra opinión, el desarrollo de determinados factores sociales en los deportes condiciona el proceso de enseñanza-aprendizaje. El trabajo que presentamos se desarrolla en Gipuzkoa, y se debe a una investigación impulsada por la Diputación Foral; en el mismo exponemos las preocupaciones y temores de un grupo de entrenadores y coordinadores, ya que según ellos creamos un plan de intervención para desarrollar habilidades sociales.*

*Palabras Clave: Deporte escolar. Formación. Plan de intervención. Habilidades sociales. Experiencia.*

*Au moyen de ce travail, nous prétendons présenter une façon de comprendre le processus de formation des responsables du Sport Scolaire. A notre avis, le développement de certains facteurs sociaux dans les sports conditionne le processus d'enseignement-apprentissage. Le travail que nous présentons se déroule en Gipuzkoa, et se doit à une recherche développée par la Députation Forale; nous y exposons les préoccupations et les appréhensions d'un groupe d'entraîneurs et de coordinateurs, car selon eux nous créons un plan d'intervention pour développer des habiletés comportementales sociales.*


*Mots Clés: Sport scolaire. Formation. Plan d'intervention. Comportements sociaux. Expérience.*

## 1. SARRERA

Gure lan hau Eskola Kiroleko arduradunen formakuntza-prozesuarekiko ditugun kezketan oinarrituta dago. Idazki honen bidez, aurkeztu nahi dugu prozesu hau ulertzeko modu bat. Gure ustez kirol baten praktikan hainbat faktore sozial jartzen dira martxan, eta hauek praktika honen garapena, eta kirol honekiko ikaskuntza-irakaskuntza prozesua baldintzatzen dute.

Aurkezten dugun lana Gipuzkoan garatzen da, Foru Aldundiak bultzatutako ikerketa baten bidez. Eskola Kirola ikastetxe barruan gertatutako kirol jarduerak dira, eskolaz kanpoko orduetan eta federazio edo klubetatik aparte gertatzen direlarik. Jarduera hauek, teoriarik behintzat, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan<sup>1</sup> egongo dira jasota. Idazki honetan Eskola Kirolean aritzen diren entrenatzaile eta koordinatzaile talde baten ardurak eta kezkak azaltzen ditugu, agian beste lan taldeetan gureak bezalako kezkak sortzen ari direlako plazaratu nahi ditugu. Gure ustez, gure lana lagungarria izan daiteke beste profesional batzuentzako. Gure lanaren sorburua aurreko beste lan batetan oinarrituta dago, alegia, 1999 eta 2001 urteen artean Josean Arruzak eta Itziar Gonzalez-ek egin zuten lan batean oinarritutakoa ("Análisis del Impacto Psicosocial en el deporte escolar de la población guipuzcoana (1999-2001)"). Bertan, Eskola Kiroleko programazioen gabeziak bat arduradunen baloreen inguruko formazio falta azpimarratzen zuten, eta falta honek pertsonen arteko gatazka sortzen zuten. Horregatik egin zen baloreetan oinarritutako formazio-programa hau, Eskola Kiroleko entrenatzaileei eta koordinatzaileei zuzenduta.

### 1. Irudia. Ikerketa honen bultzatzaileak eta sortzaileak



1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, Eskola Kiroleko programa Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan egon beharko litzateke jasota. Koordinatzailearen papera indartzeko 39/1998 Foru Dekretuan diru laguntza batzuk argitaratzen zituen.

Lan honetan Itziar Gonzalez Villegas-ek parte hartu zuen ikertzaile bezala, eta lan honen zuzendaria Josean Arruza izan zen, beraz, lan honek aurrekoaren jarraipena suposatu zuen.

Gure mintegian estrategia batzuk jarraitu ziren eta hauen artean entrenamenduko saio barruan erreflexiorako espazio batzuk<sup>2</sup> bultzatu ziren, aspektu sozialak betetzen ziren ala ez ikusteko. Espazio hauekin alde batetik, entrenatzaileen erreflexioa bultzatu nahi genuen eta beste aldetik, ikasleen<sup>3</sup> partizipazioa bultzatu nahi genuen. Erreflexio hauetan trebetasun sozialak lantzea erabaki genuen eta horretarako material espezifiko batzuk sortu ziren. Trebetasun sozialak ikasi egin daitezke, edo behintzat hala diote hainbat autorek (Caballo, 1993; Kelly, 1987; Michelson, 1987; Monjas, 1993; Vallés, 1996; Verdugo, 1995...) Ikaslearen motibazioa<sup>4</sup> eta irabazteko beharra<sup>5</sup> kontuan hartu genituen. Trebetasun sozialak, gelako giroa egokia bada eta kirolarien ikaskuntza bultzatzen bada, soilik garatu ahal dira, norberak bere konpetentzian oinarritu ahal izateko (Hellison, 1978, 1985, 1995; Monjas 1993, 2000; y Vallés 1994, 1996). Programa hau aurrera eraman ahal izateko kirolarien konpetentzia bultzatzea bururatu zitzaigun eta bide batez entrenatzaileena. Horretarako ikasleen parte hartzea handiagoa izan behar zen, entrenamenduko arauak erabakitze eta gatazketan zer esaterik izateko. Partehartzaileen autonomia bultzatu nahi genuen.

## 2. LAN-TALDEAN BEHAR BATZUK SORTU ZIREN

Gure kezka nagusia entrenatzaileen beharrak kontutan hartzea zen, jakiteko Eskola Kirolean egiten zutena beraien gustukoa zen ala ez erreflexio prozesu bat hasi behar genuen. Gure buruan beste kezka batzuk ere baziren: ea kirolean garatzen diren balore nagusiak garatu nahi genituen ala ez; ea txapelketetan erabiltzen ohi den eredu konpetitiboa hezigarria zen ala ez; ea zer zen guretzat irabaztea eta gauzak ondo egitea; eta kirolean indarra duten alderdi sozialak ea aztertzen genituen ala ez. Horrela, galdetu genienean zeintzuk ziren Eskola Kiroleko arduradunen kezkak, hasiera batean, hauexek zirela esan zuten: arreta falta arazoak, ikasle-taldearekiko kontrol falta, biolentzia egoerak eta pertsonen arteko gatazkak<sup>6</sup>. Beraien ustez, arreta falta asko hitz egiteagatik dator:

---

2. *Hellison-en* (1995) TPSR programan oinarritu ginen. TPSR: Teaching Personal and Social Responsibility.

3. Ikasle hitza erabiltzen ari gara gure eremua eskola delako, tarteka kirolari hitza erabiliko dugu, baina hitz hau kirolaren profesionalizazioarekin lotzen da gehienetan. Gure kirolariak eskolarekin daude lotuta batik bat, eta horregatik gure testuan, kirolariak baino gehiago, ikasleak edo eskolarrak izango dira.

4. "Teorías de la motivación de logro" *Duda* (1992) eta *Roberts* (1993).

5. "Teorías de las expectativas de meta " *Nicholls* (1984,1989) eta *Roberts* (1992, 1995).

6. Ikerketaren zergatia bilatzen ari ginela sortu ziren adierazpen hauek, baina informazio guzti hau zabalduta dago beste idazlan batean (Vizcarra, 2004).

[...] Oso talde hitzuna daukat, arreta eskuratzea asko kostatzen zait. Ez didate entzuten. Ezin dut ezer azaldu [...] (1. entrenatzailea, 2001eko azaroaren 5eko transkripzioa).

[...] arreta falta somatzen dut. Asko hitz egiten dute eta ozenki hitz egin behar dut ondo aditzeko, ia denbora guztia pasatzen dut isilarazten (2. entrenatzailea, 2001eko azaroaren 5eko transkripzioa).

Beste momentu batzuetan, jokoarekiko biolentzia edo gatazka egoerak somatzen zituzten. Taldeak egiterakoan arazoak egoten ziren, gurasoen presioak ere antsietatea areagotzen zuen, giroa oso konpetitiboa zelako. Modu honetan, entrenatzaile batek ikasleen erresponzabilitate falta azpimarratzen zuen, bere ustez, agian gazteegiak zirelako:

[...] nik jokoan ez dut biolentziarik somatzen [...] ikasleek ez dute erresponzabilitate askorik, oso gazteak dira eta ez dute juizio kritiko bat [...] gure arazoak taldeak egiten ditugunean etortzen dira, eta txapelketetan gurasoek sortzen duten giroarengatik [...] (4. entrenatzailea, 2001eko azaroaren 5eko transkripzioa).

Gure ustez, hau ikusita, partehartzaileak erreflexio prozesu batean sartzea interesgarria litzateke, bere praktikaren inguruko hausnarketak egin ahal izateko, eta modu horretan balio edo baloreen inguruan eta gatazkaren inguruan pentsatu ahal izateko. Hau dela eta, lehenengo helburua ikaslearekin komunikazioa hobetzea izan zen. Horretarako, Hellison<sup>7</sup>-en programa hartu genuen gida bezala. Edozein modutan, trebetasun sozialak garatu nahi genituen, eta honetarako lan plangintza bat egitaratu zen. Hasieran hausnarketarako espazio batzuk bilatu ziren (entrenamendu saioaren hasieran eta bukaeran erreflexio-momentua, eserita zirkulu batean); ikasleen partizipazioa bilatzeko ikasleei antolakuntzarako ardurak eman genizkien; trebetasun sozialak landu (Hellison, 1995; Monjas, 1993; eta Valles, 1994, 1996) autoreen lan plangintzak jarraituz; entrenamenduetan trebetasun sozialen inguruko lan bat osatu ahal izateko lan materialak (fitxak, galdetegiak, sailkapenak...) sortuz.

### **3. TREBETASUN SOZIALAK ETA BALOREAK (BALIOAK) ESKOLA KIROLEAN**

Gure ustez, Eskola Kirolak kirolak dituen alderdi positiboak bultzatu beharko lituzke, eta nolabait kirolaren eta txapelketaren alderdi negatiboak berrezi beharko lituzke. Norabide honetan Sánchez Bañuelos-ek (1995) zera proposatzen du: kirolaren balio positiboak bultzatzeko, txapelketak beste era batean antolatu behar direla. Bere ustez, denak irabazteko aukera berdinak baleuzkate arazo hauek ez ziren sortuko. Modu honetan, Tinning-entzat (1992:103) balore positibo hauek ondokoak dira: kooperazioa, besteeikiko ardura izatea, besteen gaitasunarekiko ardura adieraztea... eta balore negatiboen artean berekoia izatea,

7. Hellison-en TPSR programa (1978, 1995), kirolarien ardura garatzean datza, gizartzeratze prozesuan laguntzeko, programa hau garatzen ari da duela ia 30 urte. Gure taldean erreferentzia garrantzitsu bat da.

kolaboratu ordez indibidualista izatea, besteekiko kezka ez adieraztea, mesprezuzko jarrerak adieraztea ezberdinak diren horiekin edo horren trebeak ez diren horiekin...

Argi dago kirolak adierazten duela nolakoak diren gizarte baten baloreak, arauak, gazteen sinboloak edo beraien jokabideak (Blázquez, 1995; S. Bañuelos, 1995). Ikastetxeak, irakasleek, gurasoek eta instituzioek Eskola Kirolarekiko ardura handia dute, programa hezitzaileak bultzatzeko eta nortasun hezitzailea mantentzen dela ziurtatzeko (Arnold, 1991; Bellido, 2002; Santiago, 2002).

Irabazi nahi izateak edozein baldintza eta edozein egoeraren aurrean jokabide desegokiak ekar ditzake. Baina Eskola Kirola formatzen ari diren pertsonentzako pentsatua dago, eta formatzen ari direlako beren inguruko<sup>8</sup> pertsonen iritziek balio handia dute. Kirola egitea onura sozial bat izan daiteke, baldin eta ondo badago zuzendua. Kirola egiteagatik bakarrik ez dira onura hauek etorriko, helburuak eta intentzioak egokiak izan behar dira, gainera alderdi sozialak eta baloreak eskuratzeko aspektu hauekiko planifikazio bat egon behar du. Hori dela eta, ikasleak ardura batzuk hartu behar ditu (eta horretarako ardura batzuk bere eskuetan utzi beharko ditugu), hau dena, konpromiso batzuk hartuz eta betebeharrak batzuk osatuz, baina bide batez, kirolarekin heziketa prozesu baten parte-hartzailea izanez. Honekin batera, gure ustez, irabazteari<sup>9</sup> ematen diogun esanahia gainbegiratu beharko dugu, pertsonen arteko konparazioak gaindituz eta norberaren esfortzua baloratuz. Saiatzearen ideia indartu behar da, zentzua duten eta gainditu daitezkeen helmugak jarritz. Aspektu guzti hauekin hobekuntza pertsonala etor daiteke, baina hobekuntza soziala lortzeko taldeko arauak oso inportanteak dira. Garapen soziala lortzeko garrantzitsua da ondokoa: besteekin harreman positiboak mantentzea; besteen aprobazioa lortzea; bestea ulertzen saiatzea; pertsonen arteko gatazkak konpontzea; eta taldeko jokabideak erregulatzea arau hezitzaileekin. (Brustad eta Arruza, 2002).


Horregatik, gure formakuntza programan, hasiera batean, baloreen (jarrerren) inguruko lana hasi zen egiten, baina denbora pasa ahala, ohartu ginen zerbait gehiago behar genuela, guretzako jokabideak interesgarriagoak baitziren. Autore gehienek dioten bezala jarrerak finkeagoak dira, eta egokiagoa iruditu zitzaigun trebetasun sozialak lantzea (jokabideak). Balore edo balioak giza talde baten-tzako gauzak egiteko eta ikusteko modu bat dira. (Antolín, 1997). Baloreen bidez, lehentasuna ematen diogu jokabide bati beste baten aurrean, baina oso barneratuta daude eta aldatzeko zailak dira (Gutiérrez, 1995).

Horregatik errazagoa iruditu zitzaigun konpetentzia soziala garatzea, neurri baten barruan jakitea gizartean bizitzeko eta onartua izateko zein jokabide erabili behar diren. Edozein kasuan, trebetasun sozialak, beste trebetasun guztiak

8. Begiratu afektuzko ingurunea eta motibazio ingurunea (Nicholls, 1984).

9. Begiratu irabaztearen espektatibak ("Teorías de motivación al logro y las Teorías de las perspectivas de éxito") Brustad 2002; Duda, 1992; Nicholls, 1984, 1989; Roberts, 1992, 1993; eta baita ere, Amparo Escartí-k zuzendutako tesi batzuk: Cervelló, 1996 eta Peiró, 1996.

## 2. irudia. Gure taldean aspektu sozialak direla eta, jarraitu zen arrazonamendua



bezala, programatu behar dira, bestela ez dira garatzen, ez eta lantzen ere (Gil y García, 1993). Askotan kirol taldetan, talde barruan onartua izatea irabaztea baino inportanteagoa da (Brustad, Arruza, 2002), kirola bihurtuta, depresio, antsietate eta isolamendu sozialaren aurkako antidotoa.

Jokabideak hobetzeko talde barruko elkarbizitza hobetu behar zela uste genuen, eta horretarako, lehenengo pausua besteekiko errespetua mantentzea zen. Hellison-en (1995) ustez, norberarekiko errespetua sortzen da besteena errespetatzen denean, lehenago ez.

Gogoeta honetan trebetasun sozialen zentzua eskuratu genuen, elkarriketan dauden pertsonen balore ezberdinak kontutan hartu behar baitira, behintzat elkarriketa hori bientzako onuragarria izan behar bada (Monjás, 1993). Beraz, elkarbizitzarako lehenengo adierazlea errespetua zen, eta beste aldetik, pertsona guztien baloreak kontutan hartu behar bagenituen, hobe genuen trebetasun sozialekin hastea. Modu honetan konpetentzia soziala lortzeko, eta edozein egoera sozialean jokabide egokiena eskuratzeko, Goldstein-ek (1989) dioen bezala. Baina gatazkak ez sortzeko, edo sortzen diren gatazkak ondo

bukatzeko, erresponstabilitate soziala landu behar genuen, ardurak kirolariekin banatuz, besteen beharrak ikusteko eta hauek asetzeko gai izateko, Elias-ek, Tobias-ek eta Friedlander-ek, (2001) proposatzen duten bezala. Modu honetan batzutan, norberarentzako onurak taldekoen azpian gelditzen dira, taldeak nolabait konpentsatua egon behar du eta. Gil eta García (1993) jarraituz, trebetasun sozialak “...*ikasi ahal dira eta irakatsi ahal dira...*” beraz, gure lana zen hauei buruz lan bat proposatzea. Lan hau burutu zenean, Gorputz Heziketa arloan ez zeuden lan gehiegi eginda trebetasun sozialak garatzeko eta beste arloko adibideak hartu genituen (Álvarez, 1990; Caballo, 1993; Goldstein eta Goodhart, 1973; Kelly, 1987; Martínez eta Buxarrais, 1998; Monjas, 1993; Vallés, 1994; Verdugo, 1995;... lanetan oinarrituta eta baita ere, erresponstabilitate pertsonala eta soziala garatzeko kirol programa (Hellison, 1978, 1985, 1995).

#### 4. GURE PROPOSAMENA

Gure lanarekin ikaskuntzarako baloreak indartu nahi genituen, eta ez irabaztekoak, horretarako arau positibo batzuk garatu behar genituen. Ikasleek erabakitzeak aukera izateko egoerak bilatu behar genituen metodologia parte-hartzaileen bidez. Hasiera batean proposamenak nahiko sinpleak ziren, zerbait irakastea edo... baina gutxien ezagutzen zuten jendearekin jarrita, beti ere, berma soziala bilatuz. Gure ikerketa kualitatiboa zen, eta ikertzaile eta ikertuen beharrak asetzea espero genuen. Horretarako, talde bakoitzean behatzaile bat zegoen gustatzen ez zitzaion guztia apuntatzen. Errealitate zehatz baten ulermena bilatzen genuen, errealitate horrek bidaltzen zituen mezuak interpretatuz, baina ez genuen bilatzen teoria unibertsalik. Egoera horri erantzuna ematea baino besterik ez genuen nahi. Gure helburua lortzeko gure arteko komunikazioa egokia eta arina izan behar zen, eta honetarako ikertzaileekiko komunikazioa erraztu behar zen, kasu bakarreko ikerketa bat ari ginen egiten, eta parte-hartzaileen iritzia eta ikuspuntua ezinbestekoa zen. Beraien iritzietatik ulertu genuen beraien lan egiteko moduek zituzten alde positiboak goratu behar zirela eta alde ahulak indartu. Trebetasun sozialak garatu behar genuenean, gainbegiratu genuen zeintzuk ziren interesatzen zitzaizkigun trebetasun sozial horiek eta sailkapen bat egin genuen, ondoko aspektu hauetan bilduta:

- Erresponstabilitate eta errespetua lortzeko trebetasunak
- Taldean lan egiten jakiteko trebetasunak
- Gatazkak erregulatzen ikasteko trebetasunak
- Autoestimua hobetzeko trebetasunak

Sailkapen honen barruan entrenamenduetan garatu behar genituen trebetasun sozialak zeuden, baina tresna bat behar genuen lan guzti hau sistematizatzeko, eta fitxa bat egin genuen entrenamenduen zehar landu ahal izateko. Gure proposamena beste programa batetik aterata zegoen, Monjas-en, (1993) PEHIS programa, baina gure egoeretara egokitu genuen. Fitxa honetan aztertzen zen ondorengoa:

- Trebetasun sozialaren definizioa:
  - Ikasleak egina.
  - Irakasleak egina
- Zein egoeretan ematen den:
  - Noiz ematen den
  - Nola sentitzen garen
  - Nola sentitzen diren besteak
- Trebetasun hori garatuz gero bilatzen ditugun onurak eta desabantailak.
- Jokabideak:
  - Zein jokabide mantendu behar ditugun
  - Zein jokabide aldatu behar ditugun

Hellison-en (1995) programatik beste zerbait hartu genuen: entrenamendu saioa nola zegoen egituratuta ikasleen arteko erreflexioa bultzatzeko. Fitxa hau entrenamendu hasierako lehenengo bost minutuetan eta bukaerako azken minutuetan erabiltzen zen eta era berean, fitxa honek jokabide ezegokiei buruz hausnarketa bat egiteko balio zuen. Fitxa hauen bitartez errespetua, tolerantzia, ahotsa tonuaren zaintza, elkarbanatzea eta inklusioa garatu genuen. Monjas eta de la Paz- en ustez, (2000), jokabideak irakasteko ikaskuntza-irakaskuntza jarduera intenzionalak egon behar dira, bestela ez dira aldaketa nabarmenak lortuko, eta ez dira jokabide desagokiak baztertuko. Gure lehenengo lana, inklusio-ari buruz izan zen, inor ez zen sentitu behar baztertua inongo egoeran, berma soziala garatuz, besteen ezagutza bultzatuz, eta taldekoen arteko elkarriketa eta elkarbizitza bultzatuz. Besteen sentipenak aztertu ziren, fitxako apartatuak jarraituz, bestearen azalean jartzen saiatzen ziren, eta jolas batzuk aldatu ziren horrelako egoerak bultzatzeko, baina batez ere, ezezagunaren ezagutza bultzatzen genuen jolasen bitartez.

## 5. GURE ESPERIENTZIA MARTXAN JARRI ETA GERO, JASO GENITUEN IRITZIAK

Mota guztietako iritziak jaso genituen baina bakar batzuk aipatuko ditugu idazki honetan, alegia, metodologia partehartzaileak erabiltzeak suposatu zuena (bere alde onak eta txarrak); hasiera eta bukaerako bilerak egiteak suposatu zuena, eta trebetasun sozialen inguruko programa aurrera eramateak beraientzat suposatu zuena. **Metodologia partehartzaileek** boterea ikasleekin konpartitzea suposatzen zuen (ikasleen *apoderazioa*)<sup>10</sup>, eta bide batez, partizipazio honekin jokabide batzuk indartu nahi genituen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko. Entrenatzaile batzuen ustez, autoritatea ulertzeko modua aldatu zen, eta honekin batera, taldean konpromisoa zer zen argitzeko beharra sortu zen.

Esan bezala, metodologia partehartzaileek (*apoderazioa*) ikasleekin boterea konpartitzea suposatzen zuen eta *apoderazio* honek irakasleengan edo entrenatzaileengan mesfidantza eta beldurra sortzen zuen, eta ikasleengan harridura:

---

10. Apoderazioa: Hellison-ek (1995) erabiltzen duen hitzetik "empowerment": Giza talde bateko azpiko estamentuei boterea ematea da.



Ikasleei erresposabilitatea eman diedanean, mota guztietako egoerak sortu dira, batzuk diote: -Ixildu! Goazen entrenatzera!-, beste batzuk, ordea, desmadratzen dira. Baina zerbait azpimarratuko nuke, beste bati laguntza ematea oso baliagarria izan da beraientzat, edo nola saiatzaren zerbait irakastearen ardura beraien eskuetan uzten duzunean. (1. entrenatzailea, 2002ko otsailaren 2ko transkripzioa).

Partizipazioa bultzatzen hasi zirenean, beste mekanismo batzuk jarri behar zituzten martxan erabakiak hartzen laguntzeko, modu honetan errefortzu positiboetan indar gehiago jarri behar zen, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko, eta portaera batzuk indartzeko:

Saiatzen naiz errefortzu positiboak ematen, eta ondo egiten duten guztia azpimarratzen edo zer diren gai egiteko esaten. Norberari esaten diot zer egin dezakeen eta zer ez, eta are eta gehiago, zer egin dezakeen besteek egiten ez dutena, norberaren posibilitateak azpimarratzeko... (3. entrenatzailea, 2002ko otsailaren 2ko transkripzioa).

Partizipazioa bultzatzen zenean jarduerarekiko konpromezua eskatu behar zen, eta konpromezua eskatzearekin batera autoritatea ulertzeko beste era bat agertu behar zen, planteamendu berri bat azaltzen zela irakasleen begien aurrean, konpromezua zer zen argitzeko irakaslearen papera ezinbestekoa baitzen (Alzate, 2003), hau zela eta zera jaso genuen:

[...]autoritatea ulertzeko modua aldatzen da, jakin behar dugu ea norantza bateko bidea den (batek agintzen du eta besteak obeditu), edo bi norantzako bidea den non bi alderdiak indartuta ateratzeko elkarriketa bat ematen baita. Baina ezin da utzi dena ikasleen eskuetan, zerbait gaizki ateratzen bada, entrenatzaileak kulpak guztia izango baitu. Eta, beste aldetik, hainbat gauza, "akoso"-egoerak alegia, ezin dira kontsentsuen bidez erabaki. Pertsona baten eskubideak errespetatzen ez direnean kontsentsuak ez du ezertarako balio. Horregatik, eta bereziki kasu hauetan enpatia lantzea ezinbestekoa da. (6. entrenatzailea, 2002ko martxoaren 2ko transkripzioa).

**Trebetasun sozialak** garatzean zera azpimarratzen zuten, beste faktore batzuk hartu beharko genituela kontutan irakaskuntzan. Trebetasun sozialak garatzen zirenean aspektu positiboak eta negatiboak azaltzen ziren, eta orokorrean, gatazkak gutxitzea lortu zitekeela azpimarratzen zuten. Trebetasun sozialen inguruko lana sistematizatu zutenek zera aipatzen zuten irakaskuntzako egoera berriak (aspektu sozialak kontutan hartzen zituzten egoerak) topatzen zituztela, eta hauetan ere, landuz gero, aurrerapenak ikusten zirela:

Jokabide positiboak indartzeak jokabide horien errepikapena dakar. Egoera bakoitzaren aurrean baikorra agertzeak alde positiboak berreskuratzeko aukera ematen digu. Interesgarria izan da egoera baten alde positiboak negatiboen aurrean esatea, entzuleen jarrerak biguntzen direlako. Niretzako irakasteko modu berri bat izan da. (1. entrenatzailea, 2002ko maiatzaren memoria, banakako dokumentua).

Trebetasun sozialak garatzen zirenean gatazkak gutxitzen ziren, eta lan hau zerbait positibo bezala kontsideratuta zegoen, hori bai, segun eta nola eramaten

zen kontua onuragarria edo kaltegarria izan zitekeela azken ondorioa, hori ere ikusi genuen:

Nire esperientziak zera esaten dit, eguneroko arazoak ez direla sortzen kirola erakustean, baizik eta, bestelako egoera sozialetan. Gustatu zait Monjas-en ideia, gatazka bat ez sortzeko, hoberena da gatazka ez probokatzea, oso ideia ona da eguneroko bizitzan praktikan jartzeko (4. entrenatzailea, 2003ko maiatzaren memoria).

Orokorrean esan dezakegu, erresponetsabilitatea izatea ez zela erraza ikasle-entzatzat, batzutan erabakiak hartzerakoan egoera deserosoak sortzen zirelako, baina beste aldetik, taldean hartutako erabakiak hobeto onartzen ziren. Araudia ikasleekin akordatuta zegoen, baina egoera berriak sortzen ziren maiz eta batzutan gaiak bi aldiz tratatu behar ziren. Laburbilduz, programa honetan irakas-kuntza-ikas-kuntza estrategia asko erabili ziren, eta gatazkak konpontzeko teknikak erabili ziren, baina ez dugu ezer esan honen inguruan idazki honetan, honekin batera interesgarria izango litzateke bitartekarien garrantzia azpimarratzea, baina beste idazki baterako utziko dugu.

Lan hau praktikan jarri eta gero, orokorrean **irakasleen sentsazioak** positiboak izan ziren, bere puntu ahul eta indartsuekin, dagoeneko erabakiak ez baitziren bakarrik bere eskuetan gelditzen. Zergatik? Ikasleek erabaki gehiago hartzen zituztelako, gatazka gutxiago zeudelako, komunikazioa hobea zelako, eta ikasleak erosoagoak zeudelako taldean. Mintegian lortutako komunikazio maila ere positiboki baloratu zen.

Ikasleek arauen inguruan erabakiak hartzen zituztenean, gatazka gutxiago sortzen ziren, eta ez ziren taldetik ateratzen, hau da, gurasoengana ez ziren ailegatzen. Erabakiak hartzea ez zen erraza, baina ikasleek azkar ikasi zuten, eta honen ondorioz, errazagoa izan zen beraientzat bere emozioak azaltzea.

Ni oso pozik nago entrenatzeko modua aldatu dut, eta baita ere, arauak, elkarbizitza eta taldea bizitzeko modua [...] ikasleen konpromezua altuagoa da, interes handiagoa dute kirol honentzako, erabakietan denentzako justizia bilatzen dute. Niretzako oraingo lana askoz errazagoa da. (7. entrenatzailea, 2003ko maiatzaren 6ko transkripzioa).

Ikasleak hobeto sentitzen ziren, errespetatuagoak. Partizipatzea eta erabakiak hartzea gustatu zitzaien bukaeran, hasieran ez horrenbeste. Irakasle-ikasleekiko komunikazioa hobetu zen eta gatazkak hobeto bideratzen ziren. Programa honek ez zuen markatu entrenatzeko beste modu bat, baina bai beraien jarrerak irakaskuntza zela eta, eta hezkuntza intentzioak zirela eta. Eta beste gauza bat aldatu zen, trebetasun sozialek eman zieten ziurtasuna talde barruko arazoak gestionatzeko, hausnarketa zela medio, eta hau dena lortu zen, mintegikideen artean komunikazioa oso egokia, erraza eta aberatsa izan zelako.

Seminario honetan, nahiz eta kirol ezberdinetan egon, besteekin hizkuntza berdina hitz egitea lortu dugu. Besteek nik topatzen ditudan arazo berberak topatzen dituztelako. Interesgarriena izan da besteekin hitz egitea eta besteen iritziak entzutea (1. entrenatzailea, 2003ko maiatzaren 6ko transkripzioa).

Mintegian egoteak ez zuen ezer berria ekarri, baina konfiantza gehiago irabazi zuten, bere printzipio batzuk indartu ziren, eta betiko beste batzuk zalantzan jarri zituzten. Ez zuten mundu berri bat deskubritu. Bere eguneroko praktikaren inguruan erreflexionatu zuten, gainbegiratu zuten bere egiteko moduak eta horietatik gutxien gustatzen zitzaiena aldatu zuten.

## 6. BUKATZEKO

Ikertzaileentzat esperientzia hau oso positiboa izan zen, parte hartu genuen guztiok oso sentazio positiboak bizi izan genituelako. Gure ustez, alde soziala tratatzen denean, gure mintegian gertatu zen bezala, berehala ikusten dira lan horren ondorioak.

Topatu genuen arazoetako bat erantzunak emateko zailtasuna izan zen, egoera sozialak agertzen zirelako beti modu ezberdin batetan, eta hori da gure traba handiena, arazo sozialak ezberdinak direlako beti. Zaila da erantzun zehatz bat erabiltzea egoera guztietan, egoera oso anitzak direlako. Beti eskatzen dute erantzun berri bat. Taldean erreflexionatu eta gero, errekurtsu gehiago genituen arazo hauei aurre egiteko, eta ziurtasun gehiago geneukan eguneroko praktikan, guztiok guztion esperientzietatik ikasi baikenuen.

Gure kasuan bezala, ziur gaude, horrelako egoera bat bizitzeak esperientzia ahanzt ezina izango dela edozein pertsonarentzat. Horregatik, anima zaitetzte, merezi du eta!

## BIBLIOGRAFIA

- ÁLVAREZ, J. *Habilidades Sociales en la educación infantil*. Cuaderno de trabajo. Madrid: Escuela Española, 1990.
- ALZATE, R. "Resolución de conflictos. Transformación de la escuela". En: Vinyamata, E. (coord.). *Aprender del conflicto. Conflictología y educación*. Barcelona: Grao, 2003.
- ANTOLIN, L. *El Desarrollo Moral y el Sistema de Valores en la Competición Deportiva*. Valencia: Tesis Doctoral. Universidad de Valencia, 1997.
- ARNOLD, P.J. *Educación Física, Movimiento y Curriculum*. Madrid: Morata, 1991.
- ARRUZA, J. A.; GONZALEZ, I. *Impacto de algunos aspectos psicosociales del deporte escolar*. Proyecto de investigación. San Sebastián: DFG/GFA- UPV-EHU, 2001.
- BELLIDO, M. "Deporte Escolar para todos, o la presión de ganar un partido". *Revista digital de deporte para todos*. <http://www.nalejandria.com/00/colab/deporte.htm>. 2002.
- BLAZQUEZ, D. *La iniciación deportiva y el deporte escolar*. Barcelona: INDE, 1995.
- BRUSTAD, R. y ARRUZA, J. "Práctica deportiva y desarrollo social en jóvenes deportistas". 25-39. En: Arruza, J., (ed.). *Nuevas perspectivas acerca del deporte educativo*. Bilbao: UPV, 2002.
- CABALLO, V. E. *Manual de Evaluación y entrenamiento de las habilidades sociales*. Madrid: Siglo XXI, 1993.

- CERVELLÓ, E. *La motivación y el Abandono Deportivo desde la Perspectiva de Metas de Logro*. Valencia: Tesis Doctoral, 1996.
- DECRETO FORAL 39/1998, de 31 de Marzo, sobre creación, composición y régimen de funcionamiento del Consejo Territorial del Deporte Escolar. Publicado en el B.O. de Guipúzcoa, el 8 de Abril de 1998.
- DUDA, J.L. "Sport and exercise motivation: A goal perspective analysis". 57-91. En: Roberts, G. (ed.). *Motivation and Sport and Exercise*. Champaign, IL: Human Kinetics, 1992.
- ELÍAS, M. J.; TOBIAS, S. E.; FRIEDLANDER, B. S. *Educación de adolescentes con inteligencia emocional*. Barcelona: Plaza & Janés Editores S.A, 2001.
- GIL, F. y GARCÍA, M. "Entrenamiento de las habilidades sociales". 796-825. En: F. J. Labrador, J. AS. Cruzado; y M. Muñoz (eds.) *Manual de técnicas de modificación y terapia de la conducta*. Madrid: Pirámide, 1993.
- GOLDSTEIN, A.P.; GOODHART, A. "The use of structured learning for empathy enhancement in paraprofessional psychotherapist training". *Journal of Community Psychology*, 1, 168-173. 1973.
- GUTIÉRREZ, M. *Valores sociales y deporte*. Madrid: Gymnos, 1995.
- GUTIÉRREZ, M. *Manual Sobre valores en la educación física y el deporte*. Barcelona: Paidós, 2003.
- HELLISON, D. *Beyond Balls and Bats: Alienated (and other) youth in the gym*. Washington, D.C.: AAHPER, 1978.
- HELLISON, D. *Goals and Strategies for Teaching Physical Education*. Champaign, Illinois: Human Kinetic, 1985.
- HELLISON, D. *Teaching Responsibility Through Physical Activity and Sport*. Champaign, Illinois: Human Kinetic, 1995.
- KELLY, J. A. *Entrenamiento de las Habilidades Sociales*. Bilbao: DDB., 2000 (6ª edición).
- MARTÍNEZ, M. y BUXARRAIS, M. R. "La necesidad de educar en valores en la escuela". En: *Revista Aula*, 70, 1998; pp. 37-40.
- MICHELSON, L.; SUGAI, D. P.; WOOD, R. P. , KAZDIN, A. L. *Las habilidades sociales en la infancia. Evolución y tratamiento*. Barcelona: Martínez Roca, 1987.
- MONJAS, M. I. *Programa de enseñanza de habilidades de interacción social para niños y niñas en edad escolar (PEHIS)*. Madrid: CEPE. (1ª edición), 1993.
- MONJAS, M. I.; de la PAZ, B. *Las Habilidades Sociales en el Currículo*. Convocatoria de ayudas a la investigación educativa para 1995 del Centro de investigación y documentación educativa (CIDE). Octubre 1998. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Colección investigación, 2000.
- NICHOLLS, J.G. "Conceptions of ability and achievement motivation". Rn. R. Ames & C. Ames (Eds.) *Research on Motivation in Education*. Vol.1. 39-73. Student Motivation. San Diego: Academia Press, INC, 1984.
- NICHOLLS, J.G. *The Competitive ethos and democratic education*. M.A: Cambridge: Harvard University Press, 1989.
- PEIRÓ, C. *El proceso de socialización deportiva de las orientaciones de meta en la adolescencia*. Valencia: Tesis Doctoral. Universidad de Valencia, 1996.

- ROBERTS, G.C. "Motivation in Sport and Exercise: Conceptual Constraints and Convergence". En: Roberts, G.C. (ed.). *Motivation in sport and exercise* (3-29) Champaign, IL: Human Kinetic. 1992.
- ROBERTS, G.C. "Motivation in sport: Understanding and enhancing the motivation and achievement of children". En: Singer, R. et al. (eds.). *Handbook of Research in Sport Psychology* 405-420. New York: Macmillan, 1993.
- ROBERTS, G. C. *Motivación en el Deporte y el Ejercicio*. Bilbao: Desclee De Brouwer. 1995.
- SÁNCHEZ BAÑUELOS, F. "El deporte como medio formativo en el ámbito escolar". 78-89. En: Blázquez, D. *La iniciación deportiva y el deporte escolar*. Barcelona: INDE, 1995.
- SANTIAGO, J.J. "El desarrollo de los valores sociales positivos dentro del deporte escolar". *Revista digital efdeportes.com*. <http://www.efdeportes.com/efd47/valores.htm> Buenos Aires, 2002.
- TINNING, R. *Educación Física: la escuela y sus profesores*. Valencia: Universitat de Valencia, 1992.
- VALLÉS, A. *Programa de refuerzo de las habilidades sociales I, II y III*. Cuadernos de recuperación y refuerzo de planos psicoafectivos. Madrid: Método EOS. (4ª Impresión), 1994.
- VALLÉS, A.; VALLÉS, C. *Las habilidades sociales en la escuela*. Una propuesta curricular. Madrid: EOS, 1996.
- VERDUGO, M. A. (1995) *Personas con discapacidad*. Perspectivas psicológicas y rehabilitadoras. Madrid: Siglo XXI, 1995.
- VIZCARRA, M. T. *Análisis de una experiencia de formación permanente en el deporte escolar a través de un programa de habilidades sociales*. Bilbao: UPV/EHU (serie tesis doctorales), 2004.